

BILBOKO UDALAK ZIRKUKO ARTISTEN LANA BULTZATZEKO EUROPAKO PROIEKTU BATEAN PARTE HARTU DU, FEDER FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTA

- **Udalak FEDER funtsen 100.750 euroko diru-laguntza jasoko du Travesía - Pirineos de circo sektorerako laguntza-proiekturako.**
- **Proiektuaren helburua laguntza-metodoak eraldatzea eta metodo horiek erronka berriei erantzuteko egokitzea da.**

(Bilbon, 2020ko maiatzaren 19an).- **Bilboko Udalak, Travesía - Pirineos de circo proiektuko bazkide eta egitura parte-hartzaile gisa, 100.750 euroko diru-laguntza jaso du, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren kontura.** Travesía - Pirineos de circo izeneko proiektuaren helburua zirkuko artisten lana bultzatzea da, akonpainamendu metodoak eraldatuz eta egokituz, egungo egoeretatik sortzen diren erronka berriei erantzuteko.

Proiektu honetan, 2020 eta 2022 artean egingo diren ikuskizunen prestakuntza-, sorkuntza- eta programazio-egiturak biltzen dira, laguntza-praktika berriak esperimendatzeko, lanbidearteko elkarrizketarekin, bilaketa artistikoarekin, sorkuntzaren eta hedapenaren arteko artikulazioarekin eta eragileen, artista berrien eta onartuen arteko elkartasunarekin.

Travesía - Pirineos de circo lankidetzaproiektu bat da, eta Europar Batasunak %65 finantzatu du Eskualde Garapeneko Europako Funtsekin, Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra Programaren bidez (POCTEFA 2014 2020).

Ekimena zirkuko arteetarako mugaz gaindiko lankidetzaproiektuaren barruan kokatzen da, eta zortzi bazkidek osatzen dute, Pirinioetako bi aldeetako entitate publiko eta pribatuak direnak. Bazkideen artean, unibertsitateak daude, hala nola Toulouseko Jean Jaurés, saiakera- eta sorkuntza-lekuak eta -fabrikak, hala nola La Grainerie edo Central del Circ, baita zabalkunde-guneak eta eremu publikoko erakundeak ere, Bilboko Udala bezalakoak. Honek, urtero antolatzen ditu Bilboko Kalealdia, kaleko antzerki eta arteen jaialdia, eta Zirkualde, zirkuko arteei buruzko jaialdia

EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO PARTICIPA EN UN PROYECTO EUROPEO PARA FAVORECER EL EMPLEO DE LOS Y LAS ARTISTAS DE CIRCO, FINANCIADO POR FONDOS FEDER

- **El Consistorio contará con una subvención de 100.750 euros de fondos FEDER para Travesía - Pirineos de circo, proyecto de apoyo al sector.**
- **El objetivo del proyecto es transformar los métodos de acompañamiento y adaptar estos para responder a nuevos retos.**

(Bilbao, 19 mayo de 2020). - **El Ayuntamiento de Bilbao, como socio y estructura participante en el proyecto *Travesía - Pirineos de circo*, ha recibido una subvención de 100.750 euros, con cargo al Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER).** Travesía - Pirineos de circo es un proyecto que tiene como objetivo impulsar el empleo de los y las artistas de circo transformando los métodos de acompañamiento y adaptándolos para responder a los nuevos retos que surgen de circunstancias como las actuales.

Este proyecto reúne ocho estructuras de formación, creación y programación de espectáculos que tendrán lugar entre 2020 y 2022 para **experimentar nuevas prácticas de acompañamiento con el diálogo interprofesional, la búsqueda artística, la articulación entre creación y difusión y la solidaridad entre operadores, artistas emergentes y reconocidos.**

Travesía - Pirineos de circo es un proyecto de cooperación co-financiado por la Unión europea a un 65% por el Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER) a través del Programa Interreg V-A España-Francia-Andorra (POCTEFA 2014-2020).

La iniciativa se enmarca dentro de la iniciativa de colaboración transfronteriza para las artes del circo y está compuesta por ocho socios que son entidades públicas y privadas de ambos lados de los Pirineos. Entre los socios figuran universidades como Jean Jaurés de Toulouse, lugares y fábricas de ensayo y creación como La Grainerie o Central del Circ, así como espacios de difusión y entidades del ámbito público, como es el caso del Ayuntamiento de Bilbao, que anualmente organiza Bilboko Kalealdia, Festival de Teatro y las Artes de Calle, y Zirkualde, festival temático sobre artes circenses.